

[ASTIGARRAGA](#)

Sagardoetxea bisitatu zuten Astigarragara iritsi berri direnek

Kronika - Erredakzioa 2022-11-02 00:00



Sagardoetxea bisitatu zuen herritar talde bat, museoaren atarian.

Sagarraren eta sagardoaren historia eta kultura ezagutu zuten herrian erroldatu diren azkenek.

Astigarragara bizitzera joandako herritarrek Sagardoetxea bisitatu zuten joan den asteburuan. Astigarragako Udalaren Harrera Planaren barruan eskaini da ekimena, eta, horrekin, herritarrek aukera izan dute Sagardoetxea bisitatzeko eta herriko historia nahiz sagardoaren kultura ezagutzeko.

Hori horrela, 2021eko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era Astigarragan erroldatutako herritarrei ongi-etorri oparia egin zien Udalak, eta ederki gozatu zuten guztiek. Asteburuan, Sagardoetxeako bisita egin zuten bertako ondarea eta historia ezagutzeko. Gainera, sagarraren uza garaian egonda, sagar muztioaren elaborazio lanetan ere ibili ziren, horretarako tailerrean parte hartuta. Amaitzeko, sagardo dastaketa gidatuaz ere gozatu zuten.

Era berean, Astigarragan sagarraren eta sagardoaren kulturaren gainean ospatzen diren herriko ekitaldiei buruzko informazioa ere eman zieten bisitariei: besteak beste, Sagardo Berriaren Eguna, Santa Ana, Sagar Uza, Udazken Zaporez, Sagardo Forum, eta abar.



Sagardoetxea ezagutzeko aukera izan zuten erroldatu berriek.

Kultura Astigarraga

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!

Erantzun



Beterri-Buruntzako ekonomia sozial-eraldatzailea bultzatzeko berritxo martxan, Beterri Saretuz



Anaiak agintza gaitzaren aldean



Euskeraren erabilera erdigunean jarriko dute gaur astigartanek, antolatutako bi ekintzekin



Maita-Larburu antolatzen duen Maita-Larburuaren Anaiak proiektu bizi duna estreinatuko dute bihar Biterin

Ikusienak



[Istripua izan zen atzo gauean, Zikuñagan](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 16, 11:44 [Hernani](#)



[Eskerrik asko Isabel Zubillaga Huici](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 16 [Hernani](#)



[«Umea hil berritan, kirofanoan bertan entzun genuen aurrenekoz: 'lasai, izango duzue beste bat'»](#)

[Erreportajeak](#)
Kronika - Erredakzioa
urt 14 [Hernani](#)



[Aiatz Hernani eta Joxeba Lizeaga garaile, Ereñotzun](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 16 [Ereñotzu](#)



[Zuhaitz bat erori da Leokako labaderoko teilatura, haizeak eraginda](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 17, 12:40 [Hernani](#)



[«Helburua ez da marka zehatz bat lortzea, kirola taldean egiteko aukera sortzea baizik»](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 14 [Astigarraga](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkarte](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika@kronika.eus



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[AIURRI](#)

[ALEA](#)

[AMEZTI](#)

[ANBOTO](#)

[ANTXETA](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[BARREN](#)

[BEGITU](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GEURIA](#)

[GOIENA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[MAXIXATZEN](#)

[NOAUA](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[PLAENTXIA](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Itap](#)

[Tokikom publizitatea](#)